

Euskara berpizteko politika Ipar Euskal Herrian

(The policy to promote the Basque language
in the Northern Basque Country)

Urteaga, Eguzki

UPV/EHU. Gasteizko Gizarte Langintzako U.E. Soziologia 1 Saila.

Apraiztarrak, 2. 01006 Gasteiz

eguzki.urteaga@ehu.es

BIBLID [1137-4454 (2009), 24; 275-290]

Jaso: 2005.02.29

Onartu: 2009.09.14

Artikulu honek jakin nahi du ea, historiaren pisuaz eta legediaren mugez gaindi, euskara sustatzeko eta bultzatzeko hizkuntza politikarik dagoen ala ez ipar Euskal Herrian? Nere hipotesiaren arabera, 1990. hamarkada, modu adostuan osatutako hizkuntza politika baten sorreraren sinonimoa da. 1994ean hasi da Euskal Herria 2010 prospektibarekin, 1997n jarraitu du Hizkuntza Antolaketa Eskemarekin eta 2000. urtean gauzatu da Hitzarmen Bereziaren hizkuntza atalarekin. Politika honekin batera erakundeak osatu dira, alde batetik, hizkuntza politika definitzeko eta gauzatzeko ahalbi-deak mobilizatuz eta, beste aldetik, diagnosiak osatzeko, proposamenak adierazteko eta adostutako ekintzak ebaluatzeko.

Giltza-Hitzak: Euskara. Hizkuntza politika. Ipar Euskal Herria. Egiturak.

Este artículo pretende averiguar si, más allá del peso de la historia y de los límites impuestos por la legislación, existe o no en el País Vasco norte una política lingüística tendente a promover e impulsar el euskara. Según mi hipótesis, en la década de los 90 se vislumbraron los albores de una política lingüística diseñada de forma consensuada. Dicha política tuvo su inicio en 1994, con la prospectiva País Vasco 2010, tuvo su continuación en 1997, con el Esquema de Ordenación Lingüística, y se materializó en el año 2000, con el apartado del Convenio Específico referido al euskara. Paralelamente, se han formado varias estructuras, tanto con el fin de movilizar recursos para definir y materializar la política lingüística, como para realizar diagnósticos, lanzar propuestas y evaluar los resultados de las actividades acordadas.

Palabras Clave: Euskara. Política lingüística. Ipar Euskal Herria. Estructuras.

Cet article, on cherche à savoir s'il existe ou pas au Pays Basque Nord, bien au-delà du poids de l'histoire et des limites imposées par la loi, une politique linguistique visant à promouvoir et à favoriser la langue basque. D'après mon hypothèse, l'on aperçoit dans les années 90 les premières lueurs d'une politique linguistique faisant l'objet d'un consensus. Cette politique a démarré en 1994 avec la prospective Pays Basque 2010, elle a continué à exister en 1997 avec le Schéma d'Aménagement Linguistique et s'est enfin concrétisée en 2000 avec le volet linguistique de la Conention Spécifique. Plusieurs structures se sont formées simultanément, aussi bien pour mobiliser les ressources permettant de définir et de concrétiser la politique linguistique, que pour faire des diagnostics, lancer des propositions et évaluer les résultats des activités contractualisées.

Mots Clé : Langue basque. Politique linguistique. Pays basque nord. Structures.

SARRERA

Azken urteetan, soziolinguistika aplikatua garapen berezia ezagutzen ari da. Hainbat lan ipar ameriketako ikerlari batzuek inspiratu dituzte, Fergusson eta Fishman adibide direla. Beraien pentsamoldea diglosia konzeptuaren inguruan antolatu dute, komunitate baten barruan kokatzen diren bi hizkuntzen banaketa funtzionala azpimarratuz. Diglosiataz hitz egiten da hizkuntza banaketa hizkuntza bakoitzaren mugatze argi baten inguruan oinarritzen delarik. Adibidez, A hizkuntza publikoan egiten diren diskurtso formalei lotua zaion bitartean, B hizkuntza etxeko erabilerari josia zaio. Pentsalari horien arabera, praktika soziolinguistikoen ekonomia egonkorra zein orekatua da.

Aitzitik, 1970. hamarkadan, europako ikerlariak diglosia konzeptua egokitu-ko dute bi hizkuntzen arteko lehia eta desberdintasun egoerak adierazteko, ikuspegi aldakorrago bat hobetsiz. Hortik aurrera bi hizkuntzen arteko harreman problematikoa ekiten da zeren: edo hizkuntza nagusia bezain ofiziala pixkanaka baina segurtasunarekin hizkuntza gutxituari ordezkatu zaio bere tokia hartuz, edo hizkuntza ezofizialaren hitzunik borrokatuko dira bere berreskurapena segurtatzeko bizi sozialeko arlo guzietara hedatuz.

Beste ikerketa batzuk, aldiz, hizkuntza politikari interesatu dira, jakinik nozio hau ezin daitekela hizkuntza planifikaziotik banatu, zeren gizarte batean dauden bi hizkuntzen inguruan burutzen diren ekintza politikoaren bi mailak dira. Zentzu horretan, hizkuntza planifikazioak hizkuntza politikoak finkatzen dituen kontsiderazio, aukera eta ikuspegiengauzatzea adierazten du instituzioen mailan edo, nahiago bada, zuzenbidearen mailan. Zehazkiago, hizkuntza planifikazioa honela definitu daiteke:

hizkuntza arazoak konpotzeko eginak diren saiakera zein indar konziente bezain antolatuak bezala. Erabaki horiek hartuak dira hizkuntza praktika eta jarrera batzuk bultzatzeko eta eragiteko. Hizkuntza baten erabilera nahitara moldatzeko indar multzo bat da.

Ondorioz hizkuntza politika agertzen zaigu hizkuntza eta bizi sozialaren arteko harremanetan konzienteki eginak diren aukera multzo bat gisa. Hizkuntza planifikazioa, ordea, hizkuntza politika bat gauzatzeko behar diren neurrien aurkitzea zein erabitzea bezala ageri zaigu. Beraz, hizkuntza planifikazioak hizkuntza politika suposatzen badu kontrakoa ez da egia. Hain zuzen ere, gerta daiteke hizkuntza komunitate batek osatu duen hizkuntza politika aplikatzeko ahalmenik ez ukatea edo ez instituzioen bidez gauzatzea. Frantzia, modelo honen adibidea da duela hainbat urte hizkuntza politiken arteko gatazken tokia baita. Baina, Estatutik ala gzarretetik datozela, soilik azken urteetan itxura juridiko bat hartu dute. Rouquette-ek esaten duen bezala, Frantzian hizkuntza zuzenbidea oraindik sortzen ari da. Funtsezko legeak monarkia eta iraultza garaikoak ala gerla osteoak dira, nahiz eta azken urteetan garapen nabarmena ezagutu.

Zer esan dezakegu Frantzian gauzatzen den hizkuntza politikari buruz? Boyerrek azpimarratzen duen erara, Frantzian, hizkuntza gutxituak serioski hartzen dituen proposamen guziak Estatu aferak bilakatzen dira, nahiz eta tokiko hizkun-

tza eta dialektoen irakaskuntza legeztatzen duen Deixonne legea onartua izan eta azken urteetan aurrerapausoak egon. Zeren Frantziak hizkuntza gutxituen aurkako borroka tradizio luze bat dauka. Errepublikak monarkiaren joera naturala areagotu du zeren, ez da soilik hizkuntza gatazkak baretzen saiatu dela, baizik eta hizkuntza horien irudi ezkorrak garatu dituela nazioaren alfabetizazioaren izenean. Izan ere, soziolinguista batzuek erakutsi dutenez, *patois* hitzak, hizkuntzaren ikuspegi ezkor bat dakar. Batik bat Hezkuntza Nazionalaren bidez, praktika glotofagikoa nagusitu da eta are eta eraginkorragoa izan da legera jo gabe zilegizatu baitu.

Beraz, luzaroan, Frantziak hizkuntza gutxituen hizkuntza antolaketa arbuia du hizkuntzen arteko gatazka handitzen utziz frantsesaren mesederako. Alabaina, bi joerek pixkanaka hizkuntza politiken araberrako botere publikoen jarrera aldatu dute 1970. hamarkatik landa. Batetik, hizkuntza horien ezagupen ofiziala eta berreskurapena aldarrikatzen duten mugimendu antolatuak sortu dira. Ofizialtasunaz gain, euskararen presentzia oparoagoa eskatzen dute, hezkuntza, komunikabide eta zerbitzu publikoetan. Bestetik, ingelesaren eragin geroz eta handiagoa nabaritzen joan da ingeles hitzak frantses hiztegian sartuz. Egoera honen aurrean, Frantzia pixkanaka hizkuntza politika bat osatzen eta ondoren gauzatzen hasi da hizkuntza gutxituak babesteko asmoz.

Aitzitik, interesatzen gaituena jakitea da ea, historiaren pisuaren eta legedia- ren mugez gaindi, euskara sustatzeko eta bultzatzeko hizkuntza politikarik dago- en ala ez? Nere hipotesiaren arabera, 1990. hamarkada, modu adostuan osatu- tako euskararen aldeko hizkuntza politika baten sorreraren sinonimoa da. 1994ean hasi zen Euskal Herria 2010 prospektibarekin, 1997n jarraitu zen Hizkuntza Antolaketa Eskemarekin eta 2000. urtean gauzatu zen Hitzarmen Bereziako hizkuntza atalarekin. Politika honekin batera erakundeak osatu dira, alde batetik, hizkuntza politika definitu eta gauzatu ahal izateko ahalbideak mobilizatzeko eta, beste aldetik, diagnosiak osatzeko, proposamenak adierazte- ko eta adostutako ekintzak ebaluatzeko.

1. EUSKAL HERRIA 2010 PROSPEKTIBA

Euskal Herria 2010 Prospektibak hausnarketa kolektibo baten hasiera adie- razi du ipar Euskal Herria eta bere hizkuntzaren geroari buruz, Euskal Herria 2010 elkartearen barnean. 1992ko irailetik at, CODILen ekimenari esker, Baionako Suprefetak, tokiko hautetsiek, lanbideetako ordezkariak, funtzionarioak eta elkarteen ordezkariak elkarrekin egoeraren azterketa bat eta ikuspegi pros- pektibo bat egin dute, GERPA prospektiban aditua den ikerketa bulegoaren laguntzarekin.

Azterketa honen emaitzak argitaratuak izan dira publikoki aurkeztu diren hiru txostenen bidez. Aurkezpena 1993ko abenduaren 4ean suertatu zen Baionako Industria eta Merkataritza Ganbaran eta txosten horietan aurkitu daiteke: 1) gaurko egoeraren analisi bat, perspektiba historiko baten bidez, bere osagai eko- nomiko, politiko, sozial eta kulturaletan, 2) azterketa estruktural bat zeinek alda- keta bektoreak, joera nagusiak eta geroko funtsezko neurriak azpimarratzen dituen, 3) prospektiba bat zeinek geroko sei eszenarioak agertarazten dituen.

Batek gaurko egoeraren bilakaera jarraitzen badu, besteek suerta daitezken eszenario ezberdinak deskribatzen ditu, beti ere eragileen erabakien arabera.

1.1. Euskararen egoeraren diagnosis

Prospktibaren egileen arabera, ipar Euskal Herriak bere hizkuntzari, kulturari eta historiari lotua dagoen nortasun indartsu bat dauka. Bere lehen aberastasuna hizkuntza da eta, nahiz eta europako zaharrena izan, hiltzorian dago, euskarazko irakaskuntzaren garapena ez baita nahikoa bere erabilpena berpizteko.

1.1.1. Ipar Euskal Herriaren modernizazioa eta euskararen galera

Txostenak dion moduan, duela gutxi arte ipar Euskal Herriak bere antolaketa tradizional bezain komunitarioa atxiki du. Modernitatea frantsesari lotua zegoen, esan nahi baita modan izateko eta gizarte modernoaren arabera ez atzeratua gelditzeko, ipar Euskal Herriko biztanleek frantsesa ikasi behar zutela baita euskara ahaztu ere. Ondorioz, elebitasunak esan nahi zuen euskaratik frantsesera igaro behar zela modernitateara pasa nahi izan ezker. Frantses iraultzak fenomeno hori areagotu du, alde instituzional bat emanez, zeren euskara XVIII. mendeko pentsakeraren hedapena oztopatzeaz akusatua zegoen. Bestela esanda, modernitateak frantsesa hitzegiten bazuen, sineskeriak euskara erabiltzen zuen.

Ondorioz, XVIII eta XIX. mendeetan euskara gudukatua izan zen eta modernitatearen aukera egiten zutenek euskara utzi behar zuten, ez hainbeste bortxatuak zirelako, baizik eta ez ziotelako inolako baliogarrtasun sozialik ematen. Galera, maila batean, promozio sozialak konpentsatzen zuen. Hala ere, laborari munduan, euskarak nagusi izaten jarraitzen zuen. Elizak euskararen apostua egin zenez, haustura handitu zuen, frantsesa, modernitatearen eta arrazoiaren hizkuntza eta, euskara, tradizioa eta morala komunitarioaren hizkuntzaren artean. Halaber, bertako jauntxoek haustura hori sakondu zuten, zeren gizarte tradizionalako kide izaten jarraitzen bazuten, besteak beste euskararen erabilerari esker, gizarte moderno oso ongi ezagutzen zuten. Beraz, ipar Euskal Herriko funtsezko pertsona bat bilakatu zen, biztanleriaren eta Estatuaren artean bitartekari errola jokatu.

Modelo hau nagusitu da baserri mundua modernitatean sartu arte. Euskarak ez zuenez inungo baliorik eta gutxiestearen baliokidea zenez, euskaldunek beraien hizkuntza sufrimendu bat bezela bizi zuten. Ohartzen ziren baliogabekoa izan arren aberastasun bat suposatzen zuela. Baina, askok hainbat apalkuntza eta trufakeri ekarri ziren hizkuntza beraien haurrei ez transmititzea erabaki zuten.

1.1.2. Erabilera mugatua eta ikasteko gogoa

Prospektibaren egileen arabera, garai traumatiko hori amaitu da baita euskara kasik desagertu ere gizarte tradizionalarekin batera. Aitzitik, euskara ikasteko grina berriz agertu da eta ez da garatzen gelditu biztanleak ohartu direnetik euskara galtzeko arriskuan zegoela eta aberastasun bat errepresentatzen zuela.

Oharra kontraesangarria da zeren, euskara ez bada inoiz hain gutxi erabilia izan, inoiz ez da ikasteko gogo hain handirik egon. Hala ere, kontzientzia hartzeak ez du esan nahi euskara komunikazio hizkuntza bat bilakatu denik. Maila horretan elkarte munduak indar berezi bat egin du bere ekintza, mobilizazio eta praktikekin, hala nola, ikastolen sorkuntzarekin. Ikusi daitekenez, txosten horien egileek ez zuten 1991an egin zen inkesta soziolinguistikoaren daturik eta egiten zituzten oharrak beraien esperientzietatik eta intuizioetatik ateratzen zituzten.

1.1.3. Euskarazko irakaskuntzaren garapena

Era berean, txostenaren egileek diote irakaskuntza elebidunean dabilzan ikasleak gero eta gehiago direla, gizartean dagoen eskaera nabarmena erakutsiz. Ama eskolan eta lehen mailan eskolatuak diren ikasleen %80ak eta %86ak frantses hutsean ikasten badu, gero eta guraso gehiagok irakaskuntza elebiduna hautatzen dute, batik bat aukera dutelarik. Horrek erakusten du euskarazko irakaskuntza eskaintza ez dela nahikoa. Arazoa da sail elebidun gehienak Lapurdi hegoaldean kokatzen direla. Eta egoera aldatzeko ez bada ezer egiten, ipar Euskal Herria bitan zatituko da. Batetik, Lapurdi hegoaldea dago non hurrek euskara ikasteko aukera ukanen duten beraien gorasoek sail elebidunetan eskolatzeko aukera edukiko baitute. Bestetik, gainontzeko lurraldea dago non euskara erabiltzeko aukerak murriztuko diren ez baita eskolarik egongo eta familia transmisioak beherantz egingo baitu. Ondorioz, urrengo urteetan sortuko diren ikasgelak lurraldea orekatu behako dute euskarazko irakaskuntza eskaintzari dagokionez. Orohar, hizkuntza politika baten sorrera premia kotzat jotzen da.

1.1.4. Helduendako irakaskuntza mugatua

Prospektibaren arabera, AEKko klaseak jarraitzen dituzten ikasleen kopurua 566tik 827ra pasa da 1981 eta 1993ren artean. Nahiz eta garapen bat egon, soilik helduen %0,5ak euskarazko klaseak jarraitzen ditu ipar Euskal Herri osoan. Ikasle gehienak Lapurdi barnealdean eta kostaldean kokatzen dira, Baxe-Nafarroa zein Xiberoa maila ertainean daudelarik.

1.1.5. Diru gutxi euskal kulturaerantz

Era berean, azpimarratzen dute kulturari sagaratua den diru-laguntzetatik soilik %14a euskal kulturari ematen zaiola, jakinik erakustokiek %17,5a jasotzen dutela, teatroek %12a eta hedapen kulturalak %11a. Beraz, euskal kultura atzerriko kultura bat bezela ikusia da, ez zaiolako behar duen dirua ematen, kontsiderazio falta agerian utziz.

1.2. Eszenario prospektiboak

Prospektibaren azken dokumentuak sei eszenario aurkezten ditu non diagnosis agertu diren joera nagusien bilakaerak zehazten dituen, baita egoera kon-

trastatuagoak ere. Maiz agertzen diren *hondamendi eszenarioa* eta *egitismo eszenarioa* alde batera utziak izan dira aukera desberdinak agertaraziz, errealitatearen konplexutasuna eta aniztasuna agerian utziz. Hiru eszenario mota bereizten dira:

- Eszenario tendentzialak erakusten digu zer gertatuko den 2000. urtean ezer ez bada egiten,
- Hiru eszenario kontrastatuek agerian uzten dute zer gertatuko den 2010. urtean ez bada politika orokor bezain partekatu bat martxan jartzen,
- Bi eszenario boluntaristagoek, aldiz, esaten digute zer gerta daiteken neurriak hartzen badira eta garapen zein antolaketa egoki bat osatzen eta ondoren gauzatzen bada.

Lehen eszenarioan, prospektibaren egileek azpimarratzen dute gaur egungo joerek segitzen badute, batik bat hizkuntzaren eta kulturaren arloetan, euskararen erabilera beherantz joango dela eta kostaldea zein barnekaldearen arteko amildegia emendatuko dela.

2. HIZKUNTZA ANTOLAKETA ESKEMA

Aipatutako Prospektibak jarraipen bat ukango du Euskal Herriko Garapen eta Antolaketa Eskemarekin. Modu adostuan osatua izan da, Estatuaren, Eskualdearen, Departamentuaren, lurralde kolektibitateen eta gizarte zibilaren ordezkarien parte hartzearekin.

Proposatzen duen geroaren ikuspegiarengatik, adierazten duen handinahiarengatik, eskatzen duen konpromezurengatik, Garapen eta Antolaketa Eskema egitasmo estrategiko bat da Euskal Herriarentzako hemendik 2010era. Asumitua den nor-tasun baten gainean finkatua izanik, Eskemak norabideak zehazten ditu eta helburuak zein egitarau operazionalak ezartzen ditu.

Eskema maiz berrikusia eta egokitua izango da lurraldearen erronka berriei aurre egiteko.

2.1. Eskemaren arrazoiak

2.1.1. Prospektibatik Eskemara

Antolaketa Eskema osatzerakoan, bere egileek Euskal Herria 2010 Prospektiba buruan daukate baita Lurraldea deituriko lurralde egitasmoa ere, azken honek, ipar Euskal Herriaren geroa egitura dezakeen funtsezko oinarriak zehazten dituelarik. Hortik abiatuz, Hautetsien Kontseiluak Garapen Kontseiluari eskatu zion hizkuntza atal bat ukango zuen Garapen eta Antolaketa Eskema bat osa zezan. Diagnostik ekintzara pasatzea nahi zen, nahiz eta ekintzen zerrenda batera ez mugatu. Zentzu horretan, Prospektibaren eta Lurraldearen gainean oinarrituz Eskema erregjistroz aldatu da azterketa kokaleku espazial bat hobetsiz

bai ipar Euskal Herrian bai kanpoarekiko harremanetan. Aukerak egiteko ordua heldu da.

2.1.2. Euskal Herriko politika publikoak norabidetzea

Garapen eta Antoketa Eskema ez da aurretik finkatutako metodologia baten arabera egina izan, bere helburuak zein edukia argitzen joan baitira osatzearekin batera. Orohar, hiru ziren bere helburuak:

- *Ipar Euskal Herriaren aldaketa boluntario baten dinamika zehaztea eta partekaraztea*, beti ere testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoan suertatu diren aldaketak kontutan hartuz. Eskemaren nahia koherentzia sistema bat baieztatzea da zeinek, urrengo hamar urteetan, ipar Euskal Herria hunkituko duten aldaketei zentzua emango dien. Beraz, norabidea finkatzen du eta ez amaiera.
- *Tokiko eragileen mobilizazio kolektibo bezain iraunkorra bermatzea*. Ez duenez legea aldatzeko eta ekintzak gauzatzeko gaitasunik, Eskemak neurriak zehaztuko dituen dokumentuak sortu eta norabidetu ditu. Ondorioz, Garapen eta Antolaketa Eskemak arauak eta ekintza kolektiborako kokaleku estrategiko bat finkatzen ditu lurralde honetan dabilzan eragileen konpromezu iraunkorrari esker.
- *Adostasun orokor bat bultzatzea*. Lehendabiziko bi helburuak bete eta, ipar Euskal Herriaren geroan inplikatuak diren eragileen konpromezu zehatz bezain adostuak sortu ditu Euskal Herria Kontratua osatuz. Kontratu hau, norabideek, deklinabide tematikoez, gauzatutako modeloek eta aplikapen hitzarmenek osatuko dute, jakinik, hitzarmen horiek egitarauak, helburuak, obragintza sistemak eta diruztatzeak zehazten dituztela.

2.1.3. Ikuspegi orokor bat

Soilik helburu horietatik habiatuz uler daiteke Antolaketa Eskemaren kokapena eta mamia, zeren bere helburua ez da ipar Euskal Herriko erronka guztiak aipatzea ezta ere lurralde horretan burutuko diren politika publiko guztiak norabidetzea. Bakarrik, ipar Euskal Herriari buruz ikuspegi orokorra daukaten egitasmo zein galderak kontutan hartzen ditu. Hori dela eta, Eskemaren helburua ez da antolaketa eta garapen egitarau oso bat zehaztea, baizik eta eragile zein egitasmo desberdinei interpretazio kokaleku bat eta koherentzia bat ematea, beti ere ikuspegi orokor batean oinarrituz.

2.1.4. Osatze kolektibo bat

Eskema hau ez dute soilik adituek osatu, ipar Euskal Herriko elkarte eta erakunde guztien inplikazioaren fruitua izan baita. Hala eta guztiz ere, Eskemak ez du unanimitatearen liluran erori nahi. Baina, osatzerakoan eta erabaki estrategikoak hartzerakoan, joan-etorri askori esker, Eskemak ipar Euskal Herriari buruzko

ikuspegi desberdinak kontutan hartu ditu lurralde honen antolaketaren eta garapenaren aukera estrategikoa eginez.

2.1.5. Egituraren apustua

Hizkuntza atala daukan Garapen eta Antolaketa Eskema, ez da egitasmo sektorialen kokapen arrunta bat bezala eginga izan. Ipar Euskal Herriko garapen dinamika espazialen ikuspegi komuna proposatzeko eta formalizatzeko handinahiarekin osatua izan da; ondoren, eragile bakoitzak bere arloan eta tokian gauzatu eta lagundu duelarik.

2.2. Hizkuntza Antolaketa Eskema

Euskal Herria 2010 Prospektibak eta Lurraldea txostenak argiki planteatu dituzte nortasun kulturalari loturiko erronkak eta nortasun horren garrantzia ipar Euskal Herriaren garapenean. Euskararen erabilerari buruz bi ohar egiten dira: batetik, euskararen familia transmisioak ez duela gehiago eraginik eta, bestetik, azken 30 urteetan eginak izan diren indarrak euskarazko irakaskuntza garatzeko ez dutela familia transmisioaren gabezia ordezkatzeko. Jakin behar da, euskarazko irakaskuntzak 9.000 ikasle hunkitzen dituela 44.000 ikasleren gainean eta 222 lanpostu sortu dituela.

Irakaskuntzaren garapena funtsezkoa bada ez da nahikoa euskararen berreskurapena bermatzeko. Textuinguru honetan, euskararen ezagutza eta erabilera garatzeko hizkuntza politika egoki bat osatzea funtsezkotzat jotzen da, horrek hiru gauza suposatzen dituelarik: 1) denboran zehar kokatzen den eta berkonposaketa segurtatzen duen ekintza sakona, 2) euskara ikasteko gogoia bultzatuko duen sustatze ekintza eta 3) neurri larriak euskara berbalorizatzeko.

2.2.1. Euskarazko irakaskuntza bultzatzea

1. *Irakaskuntza elebidunaren eskaintza orokortzea.* Eskemaren egileen araber, duela 30 urte ipar Euskal Herriak euskarazko irakaskuntza politika bat garatu du. Modelo bat bilakatu da Frantziako beste herri batzuentzat. Publikoak, pribatuak eta elkarteek euskarazko irakaskuntza eskaintza antolatu dute eta, lan horri esker, 1990. hamarkada erdian ikasleen %20ak euskara eskolan ikasi du, izan dadila murgiltze metodoan ala modelo elebidunean. Eskemak indar hori bi moduz indartzea zein norabidetzea proposatzen du:

a. Euskarazko irakaskuntza eskaintza modu adostuan garatzeko estrategia bat osatzea: 1) dauden hiru modelo pedagogikoen gainean oinarrituz eta modelo elebidunak hobetuz, 2) lehen maila lehen mailari emanaz, eta 3) irakaskuntza honen jarraipena bermatuz kolegiotik unibertsitatera. Baina, estrategia honek lurraldearen berezitasunak kontutan hartzea eskatzen du:

- Landatze estrategia bat Baionako aglomerazioan non ikasleen %40a kokatzen den eta non, modu bitxian, aukerak mugatuak diren,

- Egonkortze estrategia bat bitarteko eremuan non euskarazko irakaskuntza gehien garatu den, nahiz eta eskaintza hori osatu behar den,
- Eskaintzaren berkonposaketa estrategia bat barnekaldean non ikasle galerak nagusi diren eta non inimizazio modeloa orkortu den.

b. Euskarazko inimizazioaren eskaintza segurtatzea, horrek irakasleen kontratazioa baita pedagogia, ekipamentu eta logistika egokiak lortzea suposatzen duelarik. Eskemak gomendatzen du:

- Maixuen heziketa eta kontratazio sailak indartzea eta horretarako IUFMekin batera lan egitea beharrei aurre egiteko eta *maîtres auxiliaires*-en egoera erregularizatzeko,
- IKAS zentru pedagogikoaren egituraketa bizkortzea irakaskuntza sailen pedagogia sustengu erakunde bat bezela,
- Ekipamenduen eta ahalmen logistikoen eraikuntza edota berbanaketa fagoretzea.

2. *Helduei zuzendua dagoen euskarazko irakaskuntza eskaintza indartzea.* Irakaskuntza honen eskaintza oso urria da euskararen erabilerak derrigortzen dituen erronkak kontutan hartuta eta giza, tekniko zein material baliabideak mobilizatzea ezinbestekoa da.

2.2.2. Paisaje linguistikoa berosaketa

1. *Euskarazko seinalekuntza garatzea.* DDEren eta Kontseilu Orokorren bidez, bide departamentalei dagokionez, seinalekuntza elebiduna jadanik martxan da 1990. hamarkadaz geroztik. Mugimendu hau handitzeak zein koordinatzeak zerbitzu eta bide informazioan oinarritutako seinalekuntza elebidun plan bat osatzea eskatzen du: 1) Euskal Kultur Erakundeak (EKE) osatu dituen aplikapen oinarri orokorrak erreferentzia gisa hartuz eta 2) esku hartze egitarau bat finkatuz.

2. *Euskarazko komunikabideen sorkuntza eta berkonposaketa sustengatzea.* Euskarazko komunikabideak, irakaskuntzarekin eta seinalekuntzarekin batera, funtsezkoak dira hizkuntza antolaketan, jakinik, hiru garapen ardatzek norabide tematiko hau egituratzen dutela:

- Irrati egitasmoaren sorrera sustengatzea 1980. hamarkadaz geroztik dau den hiru irratiaren gainean oinarrituz. Ipar Euskal Herri osoa hunkitzen duten irrati horiek tokiko eskaera bati erantzuten diete. Egitasmo kolektibo horrek une berean egiturak profesionalizatu nahi ditu eta baliabide zein ahalbideak amankomuntzen ditu.
- Euskal Kultura Sustengatzen duen Herrienarteko Sindikatuarekin batera, irrati publiko euskaldun baten sorrera bultzatzea *Radio France*-en barruan.
- Euskarazko emankizunen ekoizpena eta hedapena bultzatzea, *France 3 Pays Basque* eta *Euskal Telebista*-ren gainean oinarrituz, baita ere bi kateen arteko trukaketa zein koekoizpenerako protokoloak martxan ezarriz.

3. *Elebitasuna zerbitzu publikoetan garatzea*. Euskara, zerbitzu publikoetan erabili daiteken tresna izan behar da eta horrek eskatzen du: 1) harrera guneetan, seinalekuntzan zein administrazioko idazkietan elebitasuna garatzea eta 2) toki publikoetan euskaraz hitzegiteko aukera eskaintzea. Baina, ikuspegi honetan bi ekimen nagusi bete behar dira. Batetik, herriko etxeetako zerbitzu publikoetan euskara ikasteko bidea bultzatzea, egitasmo hau gauzatzeko lehen betekizuna baita. Egunero erabiltzen diren hurbileko zerbitzu horiek habiapuntu hoberenak dira egokitze errexak baitira eta neurri horiek eragin handia sor dezaketelako herritarretan eta beste zerbitzu publikoetan. Bestetik, interes orokorreko zerbitzu anizdun guneen sorkuntza baliatzea.

Aitzitik, azpimarratzekoa da Hizkuntza Antolaketa Eskemak egile ugari mobilizatu dituela eta ez dela obratze soil bat. Hizkuntza antolaketa gauzatu ahal izateko lau baldintza bete dira: 1) egile desberdinen arteko konzertazio iraunkorra bermatzea eta hauen ekimena koordinatzea, 2) hizkuntza politikaren sustapena bermatzea, bereziki eskolako irakaskuntzari dagokionez, 3) gauzatzen diren plangintzen jarraipena eta ebaluaketa egitea, beharrezko zuzenketak proposatuz eta 4) euskararen estatutuari doazkion erabakiak gauzatzeko laguntzea.

3. EUSKAL HERRIKO HITZARMEN BEREZIA

3.1. Hitzarmen Bereziaren hasera

3.1.1. Testuinguru historikoa

Euskal Herriko Hitzarmen Berezia ulertzeko ezinbestekoa da Euskal Herria 2010 Prospektiba baita Garapen eta Antolaketa Eskema kontutan hartzea, jakinik, 1997ko abenduaren 15ean, CIADTri aurkeztu ostean, Estatuak Garapen Hitzarmen batean gauzatzea erabaki duela. Hitzarmen horren helburua jarraian gauzatu daitezken neurriak hastea eta sustengatzea da Estatu-Eskualde Plan Kontratua izenpetu arte.

3.1.2. Garapen Hitzarmena

1997ko egitarauak aurreikusten zuen, hitzarmenak, ondare eta kultura arloko ekintzak indartzea. Hitzarmenak aurreikusten zuen 2000-2006 Plan Kontratuak jarraipena hartuko zuela ekintza berrien diruztatzea bermatuz. Hala izan dadin, 1998 eta 2000. urteen bitartean, Garapen Kontseiluak eta Hautetsien Kontseiluak, Estatuarekin, Eskualde Kontseiluarekin, Kontseilu Orokorrarekin eta Baiona-Angelu-Biarritze Distriktoarekin hitzegin baita negoziatu du ipar Euskal Herriaren ekarpena zehazteko Antolaketa Eskemaren inguruan, geroztik gertatu diren aldaketak kontutan hartuz.

3.1.3. Estatu-Eskualde Plan Kontratua

Estatu-Eskualde Plan Kontratuak hainbat neurri diruztatzea aurreikusten du, eta, lurraldearen antolaketa zein garapen iraunkorreko norabide legearen aplikapenean, Plan Kontratuaren lurralde atalak egitasmo lurraldeen babes orokorra eta adostutako politika proposatzen ditu. Ipar Euskal Herriak herrien osatze desmarta aspalditik aurreikusi du eta, Estatuak ezagutzen duen lurralde bat ukaitiaz gain, Garapen eta Antolaketa Eskema batez gozatzen du. 2000ko maiatzaren 18ko CIADTak Akitania Eskualdeko Prefetari eta Pirineo-Atlantikoetako Prefetari eskatu die, Eskualdearekin, Departamentuarekin eta Hautetsien Kontseiluarekin, Hitzarmen Berezi bat osa eta ondoren negoziatzea dezaten.

3.1.4. Hitzarmen Bereziaren osaketa

Horrelako Hitzarmen bat eratzeko, metodologia zehatza osatzea eta ondoren gauzatzea ezinbestekoa zen. Izan ere, Estatuak kudeaturik, eragile instituzional guztiak batuak izan ziren proposamenak formalizatzeko, beti ere Euskal Herriko Garapen eta Antolaketa Eskematik habiatuz eta jakinik 2000. urtean ebaluaketa bat egingo zela. Ondoren, Estatuaren eta lurralde kolektibitateen zerbitzuek teknikoki jorratu dituzte eta, lan hori amaitu ondoren, erabaki guneetara eraman dute.

Bestalde, ipar Euskal Herrian burutzen ari den ekintza publikoaren ulergarritasuna hobetu nahiz, lurralde osoa kontutan hartzen du, Baionako aglomerazioa barne. 1997an zehaztuak diren norabide orokorretan erabat kokatzen dira baita adostuak izan daitezken neurrien inguruan egituratuak ere, Eskematik etortzen direla ala CIADTek ordurarte gutxi jorratu dituen arloak izan daitezela. Zentzu horretan, Hitzarmen Berezia bi helburuetan kokatzen da: 1) ipar Euskal Herria euro-eskualdearen lurralde estrategikoa izatea eta 2) bere barne batasuna mantentzea zein azkartzea.

Proposatutako neurri bakoitzarentzat, aurreikusitako dirutza bat zehaztu da, diruemaileak dirutza bat ematera konprometitzen direlarik, beti ere aurretik finkatutako mugen barruan, jakinik Estatuarentzat Hitzarmenean agertzen diren konpromezuak lege finantzamentuen irikidurari baldintzatuak daudela. Baina, kasuen arabera, parte hartze horien kopuru orokorrak ekintza erabat diruztatzen du, Estatu, Departamentua ala Eskualdea obralari direlarik ala, beste erakundeekin batera, obralariaren autodiruztapena osatzen dutelarik.

Bide erdian, esan nahi baita 2003an, ebaluaketa bat egin da, are gehiago dakigunean zenbait neurri 2003an gelditu direla. Hor da adibide gisa euskal irratien kasua. Beraz, egitarauen gauzatzearen eta agertzen diren beharren arabera, beti ere adostasun desmarta errespetatuz, orekatze bat aurkitu da.

3.2. Hitzarmen Bereziaren edukia

Hitzarmenaren edukari dagokionez, 9 ataletan banatzen diren 70 neurri agertzen dira: 1) hizkuntza politika, 2) kultura, 3) ingurugiroa, 4) laborantza, 5)

arrantza, 6) industria eta lan heziketa, 7) turismoa, 8) azpiegiturak eta urbanismoa eta 9) mugazgandia. Ekintza guztien kostu orokorra 400 milloi eurotakoa da.

Hitzarmen Berezia hizkuntza atalarekin hasten da, egileek lehentasuna ematen baitiote. Bere gain hartzen ditu 1997an Hizkuntza Antolaketa Eskemak egiten dituen oharra. Eskema hori aukera izan da euskara berreskuratzeko plan bat osatzeko Fishmanek egindako gomendioak bereganatuz. Bere aburuz, lurralde batean hizkuntza asko daudenean sei urrats jarraitu behar dira zailtasunean dagoen hizkuntza balorizatzeko.

Ondorioz, funtsezko galdera euskara sustengatzeko hizkuntza politikaren obragintza publikoarena da, zeren eragile guztiek onartzen badute euskara giza-diaren ondarearen zati bat dela eta orain arte onartuak izan diren neurriak ez direla nahikoak euskararen galera gelditzeko, ezin daiteke euskararen garapena elkarte eta botere publikoen arteko harreman gatazkatsuei eta militanteen lanari utzi. Hala eta guztik ere, funtsezkoa da elkarte munduak urteetan zehar egin duen lana ezagutzea, kapitalizatzea eta desmarta boluntarista bezain eraginkor batean kokatzea.

Bestalde, Eurokartari buruzko eztabaidak ala Poignant txostenak bi osagai argitu ditu, batetik, tokiko hizkuntza ez dela lurralde kolektibitate bakar baten gaitasuna eta, bestetik, legean ezerk ez diela debekatzen hizkuntza politika bat martxan jartzea.

Azkenik, 2000ko apirilean, Garapen Kontseiluak Antolaketa Eskemari buruz egindako ebaluaketak euskararen aldeko hizkuntza politika baten beharra agerian utzi du. Horrek, Hitzarmen Bereziaren egileak funtzioetan eta ez egituretan oinarrituta dagoen dispositibo bat osatzera eraman ditu Eskemaren proposamen batzuk bere gain hartuz.

1. Botere publikoen esku izango den hizkuntza politika bat definitzea, obragintza publiko horrek Estatuak, Eskualdea, Departamentua eta herriko etxeak (Euskal Kultura Sustengatzen duen Herrienarteko Sindikatak ordezkaturik) batzen dituelarik. Egitura honen eginbeharrak dira: 1) euskararen alde martxan jarri behar den hizkuntza politikaren oinarriak zehaztea, 2) ahalbideak mobilizatzea eta 3) gauzatu behar diren egitasmoak finkatzea.
2. Obragintza Publikoari lotua, hizkuntza eragile guziak batuko dituen Hizkuntza Kontseilu bat sortzea aurreikusten da, koordinazio, behatoki, proposamen eta ebaluaketa egitekoekin.
3. Ibilmolde ahalbideekin negoziatutako kargu txostenen gainean oinarrituz eta ebaluaketa erregularrak eginez, obralari publiko ala pribatuak hautatzea egitasmoak gauzatzeko asmoz.

Horrek, Hitzarmen Berezian adostutako hamar ekintzetara garamatza:

- Hizkuntza Kontseilua sortzea,
- Euskara eskolan ikasteko sensibilizatzea,

- Eskolari loturiko eragile euskaldunak sustengatzea,
- Heziketa iraunkorreko eragileak profesionalizatzea,
- Euskaltzaindiaren ikerketa egitarauak sustengatzea,
- Euskararen Ikerketa Zentruaren kokapena bermatzea,
- Euskarazko material pedagogikoaren ekoizpena segurtatzea,
- Euskal irratiak egitasmo komun batera gidatzea eta euskararen presentzia tokiko irratietan eta telebistetan garatzea,
- Lurralde osoan, ETBren jasotze baldintza onak segurtatzea,
- Euskara interneten garatzeko laguntza fondo bat martxan jartzea.

AMAIERA

Gogora dezagun, artikulo honetan jakin nahi izan dudala ea, nahiz eta historiaren pisua nabaria izan eta legediaren mugak agerikoak izan, hizkuntza politika bat dagoen ala ez euskara sustatzeko eta aintzinarazteko? Nere hipotesiaren arabera, 1990. hamarkadan euskararen aldeko hizkuntza politika bat modu adostuan pixkanaka osatu da. 1994ean hasi zen Euskal Herria 2010 prospektibarekin, 1997n jarraitu zuen Hizkuntza Antolaketa Eskemarekin eta 2000. urtean gauzatu zen Hitzarmen Bereziaren hizkuntza atalarekin. Politika honekin batera erakundeak osatu dira, alde batetik, hizkuntza politika definitzeko eta gauzatzeko baliabideak mobilizatuz eta, beste aldetik, diagnosiak osatzeko, proposamenak adierazteko eta adostutako ekintzak ebaluatzeko.

Hala eta guztiz ere, ipar Euskal Herrian osatzen ari den hizkuntza politikak ez du zer ikustekorik Katalunian gauzatu denarekin. Izan ere, 1978ko Espainiar Konstituzioaren 3. artikulak dio: “Espainiako beste hizkuntzak koofizialak direla Autonomia Erkidego bakoitzean, beraien estatutuaren arabera. Espainiako forma juridiko desberdinen aberastasuna ondare kultural bat da, babestua izango dena eta errespetu berezi batez gozatuko duena”. 1979an onartu den Autonomi Estatutua argiagoa da oraino: 1.) Kataluniako hizkuntza berezia katalana da, 2) katalana Kataluniako hizkuntza ofiziala da baita gaztelera ere, Estatu espanyoleko hizkuntza ofiziala, 3) Generalitateak bi hizkuntzen erabilera normala eta ofiziala segurtatzen ditu, neurriak hartuko ditu bere ezagutza segurtatzeko eta baldintzak sortuko ditu Kataluniako biztanleen eskubideen eta eginbeharren berdintasuna ziurtatzeko.

Baina, Kataluniako Autonomia Estatutuaren errespetuak hizkuntza politika osatzeko eta ondoren gauzatzeko instituzio berrien sorrera suposatzen zuen. Horregatik, 1980ean, Gobernu Katalanak, bere Kultura Sailean, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Orokorra sortu zuen zein hiru zerbitzutan banatzen den: Soziolinguistika Katalanaren Institutua, Hizkuntza Kontseiluaren zerbitzua eta Katalanaren Erabileraren Normalizazio Zerbitzua. Azken honek, hainbat sensibilizazio kanpaina abiarazi ditu, besteak beste 1981 eta 1982an burutuak izan direnak Kataluniako hizkuntza normalizatorako. Bere leloak zion: *katalana, denon*

afera da. Ondoren, beste asko izan dira, hala nola hizkuntza normalizaziorako legearen hedapena lortu nahi zuena.

Une berean, Generalitateak hainbat egokipen ekarri dizkio legeari zeren, dekretu, orden eta adierazpen anitz hartzeaz gain, *Llei de Normalizacio Lingüística a Catalunya* onartu du 1983ko apirilaren 23an. Lan soziolinguistiko eta juridiko sakon batean adostutako lege honen helburua katalanaren normalizazioa segurtatzea da. Bere 2. artikulua katalanaren erabilera eskubidearen kokaleku orokorra finkatzen du katalanaren irakaskuntzaren bidez, elebitasun ezdiglosiko batera iritxi nahiz. Lege honek normalizazioaren bidea indartzen du hizkuntza bereziaren konzeptua onartaraziz ez baita hizkuntza koofizialera mugatzen. Hori dela eta, Generalitateak zilegitasun zein askatasun handiagoa dauka katalanaren aldeko neurriak hartzeko.

Hala ere, egoera ez da idealizatu behar zeren, telebistan katalanak toki oparoa badauka katalan hutsean dabilzan bi kateei esker eta kate espainolek egiten dituzten indarrei esker, irratiak eta prentsak nagusiki gaztelera erabiltzen dute. Liburugintzaren egoera askoz hobea da kontutan izanik 1975ean 590 liburu katalanez argitaratzen baziren, 1987an 4.145 liburu argitaratzen zirela. Era berean, katalanak presentzia nabaria dauka eremu publikoan, jakinik seinalebide, plaka edota kartel gehienak katalanez direla ala, gutxienez, katalanez eta gaztelerez.

Preseski, katalanaren tokia gizartean sustatu nahiz, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Orokorrek hizkuntza politikaren hainbat inkesta zein ebaluaketa burutu ditu. Diotenez, politika horrek eraginik eduki du, batez ere irudien eta jarreraren mailan baita katalanaren erabileran ere. Horrela, 1975ean, %25,7ak ez zuen katalana ulertzen, %74,3ak ulertzen zuen, %53,1ak hitzegiten zuen eta %14,5ak idazten zuen. 1986an ordea, biztanlegoaren %11ak soilik ez zuen ulertzen, %90,3ak ulertzen zuen, %59,8ak hitzegiten zuen eta %30,1ak idazten zuen. Zenbaki horiek aldaketa kuantitatibo zein kualitatibo nabarmena agerian uzten dute. Aitzitik, hiriguneetan burutu diren beste inkesta batzuek erakutsi dute espainiako beste eskualdeetatik eta kanpotik zetozen pertsonak zailtasun gehiago zituztela katalana menperatzeko. Halaber, nahiz eta katalana eskolan ikasi, gazte askok gaztelera josten dute lagun arteko harremanetan.

Orohar, esan daiteke Generalitateak burutu duen hizkuntza politikak katalana berreskuratze prozesu batean ezarri duela, moderazioarekin eta adostasunarekin egina izan baita. Gaur egun, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Orokorrek urrats berri bat gaintu nahi du katalanari lehentasun osoa emanez. Zentzu horretan, Kataluniako adibidea interesgarria izan daiteke ipar Euskal Herriko hizkuntza politika indartzeko orduan.

BIBLIOGRAFIA

- ARCACIL, LL.V. *Conflit sociolinguistique et normalisation dans l'Europe nouvelle*. Nancy: CEU, 1965.
- . *Papers de sociolingüística*. Barcelona: Edicions de la Magrama, 1982.
- BASTARDAS i BOADA, A. "L'aménagement linguistique en Catalogne au XX^e siècle", in MAURIS, J. *Politique et aménagement linguistiques*. Québec: Conseil de la Langue Française, 1985.
- BLANCHET, P. "Pour la reconnaissance du droit des locuteurs à disposer de leur idiome", *Langage et société*, n°55.
- BLANCHET, P. *Langues, cultures et identités régionales. La métaphore de l'aïoli*. Paris: L'Harmattan, 2002.
- BLANCHET, P.; BRETON, R.; SCHIFFMAN, H. *Les langues régionales de France: un état des lieux à la veille du XXI^e siècle*. Louvain: Peeters, 1999.
- BOYER, H. *Langues en conflit*. Paris: L'Harmattan, 1991.
- . *Éléments de sociolinguistique. Langue, communication et société*. Paris: Dunod, 1996.
- . *Sociolinguistique: territoire et objets*. Neuchâtel: Delachaux et Niestlé, 1996.
- BOURDIEU, P. *Ce que parler veut dire*. Paris: Fayard, 1982.
- CALVET, L.J. *La guerre des langues et les politiques linguistiques*. Paris: Payot, 1987.
- CERTEAU DE, M.; JULIA, D.; REVEL, J. *Une politique de la langue. La Révolution française et les patois: l'enquête de Grégoire*. Paris: Gallimard, 1975.
- CLUB DE PROSPECTIVE DU PAYS BASQUE 2010. *Le Pays Basque en perspective*. Juin 1994.
- CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE, *Schéma d'Aménagement et de Développement du Pays Basque: orientations stratégiques*. Bayonne, octobre 1996.
- CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE. *Le Pays Basque à mi-parcours entre 1992 et 2010*. Mars 2003.
- CONVENTION SPECIFIQUE PAYS BASQUE 2001-2006, Bayonne, 22 décembre 2000.
- FERGUSSON, C.A. "Diglossia", *Word*, n°15, 1959.
- FISHMAN, J.A. *Sociolinguistique*. Paris: Nathan, 1971.
- GARMADI, J. *La sociolinguistique*. Paris: PUF, 1981.
- HEGEGE, C. *Le français et les siècles*. Paris: Odile Jacob, 1987.
- HERAN, F.; FILHON, A.; DEPREZ, C. "La dynamique des langues en France au fil du XX^e siècle". *Population et sociétés*, n°376, février 2002.
- INSEE AQUITAINE. "Les langues parlées en Aquitaine: la pratique héritée", n°110, septembre 2002.
- IINSTITUT CSA. *Les parents d'enfants de 0 à 2 ans du BAB et l'apprentissage de la langue basque*. Paris, octobre 2001.
- LABOV, W. *Sociolinguistique*. Paris: Minit, 1976.

Urteaga, Eguzki: Euskara berpizteko politika Ipar Euskal Herrian

- LAFONT, R. "Un problème de culpabilité sociologique: la diglossie franco-occitane". *Langue française*, n°9, 1971.
- LANGAGES. "Bilinguisme et diglossie", n°61, 1981.
- LLANGUE FRANCAISE. "L'enseignement des langues régionales", n°25, 1975.
- PIETRO, J.F. "Vers une typologie des situations de contacts linguistiques". *Langage et société*, n°43, 1988.
- PLOURDE, M. *La politique linguistique du Québec, 1977-1987*. Québec: Institut québécois de recherche sur la culture, 1988.
- ROUQUETTE, R. *Le régime juridique des langues en France*. Thèse de Doctorat, Université de Paris X-Nanterre, 1987.
- TUTELA, J. *El futur del català. Una radiografia sociolingüística*. Barcelona: Publicaciones El Mon, 1986.
- URTEAGA, E. "L'évolution de l'usage de la langue basque au Pays Basque français". *Revue de Sociolinguistique: Bat*, n°43, pp.51-63, Andoain, juin 2002.
- . "La politique linguistique au Pays Basque français". *Revue de Sociolinguistique: Bat*, n°45, pp.91-102, Andoain, décembre 2002.
- . "L'Eurocité Bayonne-Saint Sébastien et la langue basque". *Revue de Sociolinguistique: Bat*, n°47, Andoain, 2003.
- . "La langue basque au Pays Basque: diagnostic, évolution et prospective". *Revue d'Études Basques: Lapurdum*, n°7, CNRS, Bayonne, 2003.
- . *La politique linguistique en Pays Basque*. Paris: L'Harmattan, 2004.
- . *La langue basque dans tous ses états*. Paris: L'Harmattan, 2006.
- VALLVERDU, F. *Aproximació crítica a la sociolingüística catalana*. Barcelona: Edicions 62, 1980.
- . *El conflicte lingüístic en Catalunya: història y presente*. Barcelona: Península, 1981.
- WARDHAUGH, R. *An introduction to Sociolinguistics*. Oxford: Basil Blackwell Lt, 1986.